

# Oi, edertasunaren eder eta apala!

## **AGUR ETA OHORE POETARI: BITORIANO GANDIAGA**

Iaz, *Mendebalde Kultur Elkarteak* Alfonso Irigoien omendu eban, mundutik alde egin eta hilabete eskas batzutara. Bera ezin izan zan gure artean egon, baina haren senitartekoek hartu eben elkartekide eta jardunaldietara hurreratu ziran euskaltzale guztien eskerrona.

Aurtengoan, beste bizkaitar bat omentzen dogu, eta Bilbo uri zaratatsutik Arantzazuko mendialde ixilera eskerronezko zubi bat eregi gura geunke, bertan bizi da-eta, nerabezarotik bizi be, aurtan omentzen dogun Bitoriano Gandiaga idazle meatarra.

Gauza bik bultzatu gaitue, besteak beste, Bitoriano Gandiaga omentzera: bateko, olerkigintzaren barrutian urte luzetan zehar egitiko lan mardulak, eta, besteko, Euskalerriaz, euskeraz eta euskal kulturaz erakutsi izan dauan atxikimendu estuak.

## **BITORIANO GANDIAGA: GIZONA**

Bitoriano Gandiaga Bizkaiko Mendata herriko Orbelaun base-rian jaio zan 1928. urtean, zazpi neba-arrebetan nagusia izanik.

Txikerretan izandako bizipenek erro-errotik markatuko dabe umearen nortasuna. Izan be, jaiotetxea herritik urrun egoteak bakardade mingotsaren txertoa sartu eutsan Bitoriano umeari, eta osaba Eulogiorenera doanean be, tristuraren zartada sentituko dau bere baitan: “Nabarrizko lehenengo akordua: aulki bat hartu, bentana ondorra bultzatu, haren gainean zutik, ezkututzen zihoan eguzkiari begira jarri eta negar eta negar egiten nuela, osabaren barreak gorabehera”<sup>1</sup>.

Osaba Ameriketara joiala-eta, barriro joaku Bitoriano Orbelaunera: “Mendatarra, esan nahi da baso arteko baserrira, bost-sei urte bete orduko seguru asko, etxeko zaharrena ni. Umezain, ganaduzain, ur eta egur ekarle, errekadu egile, errotara, Nabarriza, Gernikara, Aulestira. Eskolara urri”<sup>2</sup>. Han entzungo ditu amaren kantu gozoak, han ezagutu aitzak etxera eroandako bertso-paperak, hantxe ospatu famili arteko Gabon gozoak. Halanda guzti be, bakardadearen oldarra ez jakon aldetik joango mutikotxuari: “Pentsa dezakezuenez, Mendatako gure Orbelaun-en argi-indarririk ez zegoen. Ama etxeratzen zenean, amak pizten zuen karburoa. Umeok erdi-ilunpetan egoten ginen hura etorri arte”<sup>3</sup>. Momentu horreek eragindako emoitza literarioak ez dira urriak Gandiagaren obran. Hona hemen horreetariko bat:

Arima,  
bakarrik,  
soiñaren barnean.

Illun abarra da.

Ta ez dago argirik  
nire biotzean.<sup>4</sup>

---

<sup>1</sup> “Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats*, 17/18, 1997/Abendua, 99.orr.

<sup>2</sup> *Hegats*, 17/18, 100.orr.

<sup>3</sup> “Nere obraz”, *Hegats*, 4, 1991/Ekaina, 212.orr.

<sup>4</sup> *Elorri*, 165.orr.

Gerra aurreko urteak eta gerra ostekoak dira, gehienbat, Bitoriano txikitxuaren eskolaldiari jagokozanak. Halanda be, ez dirudi –orduko ohitura zabala zanez– inork kargu hartzen eutsanik eskolan egiten ebanaz edota ikasten ez ebanaz. Joan be, etxeko beharrak urritzen ziranean baino ez zan hurreratzen klarion eta liburu artera. *Basarteko Unibertsitateko* jakintza-gaiak hobetoxe beragandu zituan Orbelaungo mutikotxuak:

Amagaz ortuan eta  
aitagaz barriz soloan,  
lurraren errai beretan  
hasi nintzen haurtzaroan.  
Lurraren errai gordinak  
landu barri, lurrunetan;  
usainaz akordatzen naiz,  
gozo-gaziz, geroetan.<sup>5</sup>

1940. urtean, gerra amaitu barri dala, Arantzazura abiatzen danean, 12 urteko gaztetxuak eskolaldi eskasaren ondorioak sufritu behar-ko ditu, eta baita erderagazko alkartze gordina jasan be. Begitu zelan emoten deutson Gandiagak honen barri Cervantes espainiar idazle-ari: “Arantzazun ezer ulertzen ez nuelarik jarraitu nuen, baina Arantzazun euskara maskaltzeraino ikasi nuen. Ez behingoan, eskola-rik ez nuelako bost urtetan ihardun behar izan bainuen hiru urteko ikasteak egiten. Baina bitartean hobeto malgortu ahal izan nuen eus-kara. Arantzazuko urte haietan buruz ikasi nituen zure KIXOTE liburuko zati batzu”<sup>6</sup>.

Bost urte luze euskerarik egin barik pasatu ostean, euskera kolore-bakotu eta marguldu egin jakon Bitoriano gazteari eta etxera joaten

---

<sup>5</sup> *Hegats*, 17/18, 101.orr.

<sup>6</sup> *Uda batez Madrilén*, 127-128.orr.

zanetan, botatzen zituan erderakadak zirala-eta, barre egiten eben neba-arrebek frailegai gaztearen lepotik. Hareen barre-purrustadakaz nahikoturik, hasarre bizian, handik aurrera erderaz egingo eutselakoaz mehatxatu gura izan zituan Bitorianok etxeakoak. Amak, ostera, ama-sena erabilita, sukaldera deitu eta honela egin eutsan berba seme irainduari: “Bittoriano, hurrengoan ez dozu esan behar *izekoari iku - sitzat* (...). *Ikusi dot* esan behar da. *Don Kruz ikusi dot* (...) eta hola beti. Ia gu zahartu gara erdera ikasteko, halan da ze, zeuk ikasi behar-ko dozu euskeraz”<sup>7</sup>.

Ikasketak Forun, Zarautz eta Oliten burutu ostean, 1951. urtean betiko profesia egin, eta hiru urte geroago abadetu zan Bitoriano Gandiaga. Hortik aurrera irakasletzan jardungo dau Arantzazuko ikastetxean, abadetzaren betebeharrak be zintzo be zintzo beteaz.

Une horretan etapa arazotsu bat hasten da Bitorianoarentzat: “Nire tormentua apaiztu eta gero sortu zen: irakaskuntzari eta apaizgoari batera heldu eta erantzun behar izan nionean. Bi erantzukizun horietarako nintzen murriz aurkitzen eta ez batak ez besteak zidan pozik ematen eta orduan jabetu zitzaidan deskontentua, ondoeza eta umore txarra”<sup>8</sup>. Barne-burruka horren barri *Denbora galdu alde* liburuan emon euskun Gandiagak, bere barrua hustuaz eta gogo-bihotzak asaskatuaz: “Gaisoaldi gogor bat izan nuen, infarto batekin-eta, eta sikiatrari ere bisita egin behar izan nion. Eta hark esan zidan denbora galtzen ikasi behar nuela. Orduan, denbora galtzea niretzako idaztea zen”<sup>9</sup>.

Honaino gizona. Aldean umezaroko bizipenen gazi-gozoa daroan gizona eta gomutak langai poetiko bihurtzen dituana: “Zenbait

---

<sup>7</sup> *Hegats* 17/18, 103.orr.

<sup>8</sup> *Denbora galdu alde*, 129.orr.

<sup>9</sup> Uria, Iñaki / Zubiria, Pello: “Gandiagarekin esperantza urratu nahi eta ezinean”, *Argia*, 1.049, 1985/02/24, 27.orr.

zuhaitzek, bere osasunean ebakitzen bada, aldaskak, puja berriak botatzen ditu; liburu bi hauetan [*Denbora galdu alde* eta *Gabon dut anuntzio*] holako zerbait nabaritzen da. Berrindartze bat, edo nahia-go bada, *Elorri* eta *Uda baten Madrilen* ondoren itzulika bat haurtzaro linguistikora, mistikora, haurtzaroko kontzientziara, memoriara”<sup>10</sup>.

## **BITORIANO GANDIAGA IDAZLEA**

Gandiagak jakinazo egiten deuskunez<sup>11</sup>, erderaz idazten irakatsi egin eutsoen; euskeraz, barriz, ikasi eta asmatu egin behar izan eban. Literaturaren sorgina –erdal literaturarena–, Aita Elcid irakasleari esker ezagutu eban frailegai gazteak: “Hark ikus erazi zidan, testuko irakurgaiak aztertu ahala, hizkuntzaren osagaien konbinaketak zuen graziaz jabetzen eta baliatzen”<sup>12</sup>. Euskeraz be, 1940-45 epean baldartutako hizkuntza berreskuratzeko-edo, Forun ekingo deutso Gandiagak bere lehenengo behartxuak egiteari, gauzatxu xume-xumeak: mixio-aldizkarietatik moldatutako itzulpenak eta bere lehenengo bertsoak.

1948-1951 urteetan, Oliten, giro aproposagoa aurkituko dau Gandiagak euskal literaturan barrena abiatzeko. Hantxe ezagutu zituan –besteak beste– Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Arrese-Beitia eta Salvatore Mitxelenaren zenbait obra. Arantzazura bueltatuta, aukera zabalagoa izan eban euskal literatura hobeto ezagutzeko –“inoiz ere ez askorik”– eta Lizardi-Lauaxeta-Orixe sakon be sakon sartuko dira poetagai gaztearen bihotz-begietan. Frailegaiei, baina, erderazko lan eta testuekiko jardunak daroatse denborarik gehiena, euskerarekikoa eurek euretara, astiunetan-eta, egiten dabela.

---

<sup>10</sup> “Nere obraz”, 217.orr.

<sup>11</sup> *Hegats*, 17/18, 108.orr.

<sup>12</sup> “Nere obraz”, 208.orr.

1952-1957 epealdian, Jose Antonio Astigarraga lagunak lorturiko aldizkari eta argitalpenei esker, orduko eta aurreko (27ko belaunaldia...) erdal poesia sakonago ezagutzeko aukera izan eban Gandiagak; baina, euskeraz argitaratzen zana be (*Eusko-Gogoa, Egan...*), zelan edo halan, heldu egiten zan Arantzazuko fraile gazteakana. *Jakin* aldizkariaren sorrerak (1956), argi erakusten dau Arantzazuko fraile gazteek, hauts azpian egoan euskal txingarragaz, etorkizuneko ilentia pizteko eukien nahi sutsua, gogo beroa. Talde sendoa dago, beraz, frantziskotarren artean, luma zorrotz, euskal literatura eta kulturaren alde behar egiteko prest. Gandiagarentzat, euren artean ez zan eskola literariorik sortu, komunitate literarioa baino: “Gu Arantzazuko taldekoak gara. Diferenteak gara, baina elkarri eutsi izan diogu. Azurmendiren eta nire poesiak diferenteak dira, baina guk elkarri lagun izan diogu: hirurogeian nire poemak irakurtzen ditu, nik bereak ezagutzen ditut. Komunitate literarioa osatzen dugu”<sup>13</sup>.

Sasoi honexetakoak (1952-1957) dira, gero, *Elorri* liburura pasatuko diran oleri asko eta asko. Hurrengo urte bietan “Elorri” izenburuean egindako olerkiak gehituko jakez aurrekoei eta Joxe Azurmendik egindako atonketa eta sailkapenari esker 1961. urterako inprentan egoan *Elorri* liburua, zentsura arazoak tarteko, hurrengo urtera arte argitaratuko ez zan arren. Abian dogu, bada, idazlea, poeta.

Garai berekoak dira Gandiagak lortzen dituan sari literariorik gehienak. Hurrenez hurren, honakook ditugu merezi izan dituan saririk inportanteenak:

1954: “Begion lore” olerkia. 1. saria Zarautzen.

1956: “Elorriko lorak” olerkia. 1. saria Arantzazun.

1959: “Lelo xamurrak” olerkia. 2. saria Bedoñan.

---

<sup>13</sup> *Hegats*, 17/18, 105.orr.

1963: *Elorri* liburua. Jose Antonio Agirre Saria.

1963: “Argi oneko poema”. 1. saria *Oleriti* aldizkariak antolatutako lehiaketan.

1969: “Gaztainadi” olerkia. 1. saria Zornotza-Larrea.

1973: “Txakolinaren Ospakuntza”. 1. saria Euskaltzaindiak Lekeition antolatutako lehiaketan.

Aitatu daiguzan, ganetik bada be, Gandiagaren olerki-liburuak eurotan dagoz-eta poetaren emoitzarik mardulenak. Halanda be, ez dira ahaztekoak liburuoz ganera, Gandiagak hitz lauz, zein hitz neur-tuz, zenbait aldizkaritan (*Eusker, Egan, Oleriti, Karmel, Arantzazu, Zurgai, Hegats...*) argitaratu izan dituan lanak.

**Elorri**, EFA, Oñati, 1962, 224 orr.<sup>14</sup>

“Arantzazu’k nigan sortu dituan / dar-dar eta barruko ikaraen ots”<sup>15</sup>; honan bertso-lerro bitan azalduta liburuaren funtsa. Arantzazu eta bertan apal eta zarpil hazten dan elorri xumea ditugu, beraz, kan-tagai nagusi Gandiagaren lehenengo poemarioan, mutiko zala ames-tutako liburua, hatan be: “Mutiko nintzala pentsatu nuan Arantzazu-taz liburu argi eta urdin bat idaztea: letra gutxikin eta tarte zuri asko-ekin”<sup>16</sup>. Liburuko lehenengo olerkian be, asmo honexen barri damosku Gandiagak:

Ementxe dago arkaitza.  
Ume nintzanean,  
soin gabeko poema bat  
usmatu neban, eziña,  
arkaitz zurtz onen ganean.<sup>17</sup>

---

<sup>14</sup> Aita Villasanteren sarrera. Urte berean, Fr. Pedro de Anasagastik eginiko *Espino* izeneko itzulpena argitaratu zan. 1989. urtean liburuaren bigarren argitalpe-na egin zan J.M. Lekuonaren sarreragaz.

<sup>15</sup> *Elorri*, 21.orr.

<sup>16</sup> Zabaleta, Pello M.: “*Elorri* (Egillearekin izketan)”, *Jakin*, 16, 1964, 71.orr.

<sup>17</sup> *Elorri*, 23.orr.

Pello M. Zabaletari eskainitako alkarrizketan dinoanez, berari Bilboko errioa eta hango gabarrak, untziak, etab., asko gustatzen jakozan arren, Arantzazun ia umetatik bizi dalako kantatu du inguru hori, hurren eukalako eta paraje horreekaz bat eginik bizi izan dalako luzaro (Madrilegaz behinola egin eban lez, ausartuko ahal da inoiz oraingo Bilboz!). Horretara, elorria arkaitz latzean jaiotzen dan anztera, *Elorri* bihotz haundi eta sensible baten jaio zan.

Liburua zortzi ataletan banatuta badago be<sup>18</sup>, gairik garrantzitsuak honako honeek litzatekez: a) Umetako gomutapenak (gurasoak, jaiotetxea...), b) Fedea (Ama Birjina, Jainkoa, abadetza...), c) Arantzazu (izadia, santutegia...), eta d) Elorria (giza-bizitzaren sinbolo)<sup>19</sup>.

Argitaratu zan garaian kritika onak izan zituan Gandiagaren lehenengo olerki-liburuak: “No es el canto de un reducido mundo. Es universal como la pena, la alegría, la esperanza, el amor”<sup>20</sup>. Egilea be, Azurmendiren erizkide dogu: “*Elorriko ni-a*, ni-neua baino zabalagoa da: gizateria izateranokoa, baina ez abstraktuki hartua, neugan errotua eta pertsonatua baino”<sup>21</sup>. Mitxelenak be, goraipamen handiak egin eutsezan liburuari eta egileari: “Bere eran eta tajuan –besteak beste, eta ñor gutxietsi gabe– nekez ager daiteke Gandiaga´ren neurrikorik. (...) Aurrera ere, liburu onezaz mintzatu bearra izango da, noski”<sup>22</sup>. Irakurleagoaren harrera, ostera, ez zan pentsatu eitekean bezain beroa izan, sinbolista, intimista, lirikoegia ei zalako poesia soziala modan egoan garairako. Baina, Mitxelenak iragarri legez, ardo onagaz jazotzen dana gertatu da *Elorri* liburuagaz be: denbora joana-

---

<sup>18</sup> Olerkien ordenaketa Joxe Azurmendiri zor jako. 1962ko argitalpenean Gandiagaren fraile lagunaren zortzi idazkitxu agertzen ziran ataloi eutseela, baina 1989koan kenduta dagoz.

<sup>19</sup> Joan Otaegik honeri buruzko artikulu bi emon ditu argitara: “Sinboloa Gandiagaren *Elorri*”, Enseiukarrea, 11, 1995, 157-176.orr.; eta “Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri*”, Enseiukarrea, 12, 1996, 93-113.orr.

<sup>20</sup> Azurmendi, Joxe: “Elorri”, *Arantzazu*, XLIII, 1962, 341.orr.

<sup>21</sup> “Nere obraz”, 209.orr.

<sup>22</sup> Mitxelena, Koldo: “Elorri”, *Egan*, 1-3, 1962, 89.orr.



go eta hobe begitantzen jakula, umotuagoa. Baliteke euskaldugoa bera be, une honetan egoera aproposagoan aurkitzea era horretako lanak beraganduteko. Autoreak be, ezin dau ostondu bere lehenengo liburuari deuson txera berezia: “Niretzako orain arte egin dudan gauzarik onena horixe da”<sup>23</sup>.

Esandakoaren frogagarri, hona hemen *Elorri* burutu zanetik 30 urtera, Deustuko Unibertsitatean, “Azken euskal poesia” izeneko berbaldi zikloan Patxi Ezkiaga poetak esandakoa: “Gehien markatu nautenak azpimarkatu beharko banitu, nik lehenengoz izen bat aipatuko nuke, nire ustez agian euskal poetika inork baino gehiago markatu duena, eta baztertuta daukagun gizon bat: Bitoriano Gandiaga. Bere *Elorri* liburua neretzat benetan obra klabea da gaurko olerkigintza ulertzeko”<sup>24</sup>.

BEGIAN jaio zan.  
Nire eskuak ez eutsan  
ikutu sekulan.  
  
Iruntz-tanto bat zan  
okaran baltzean.  
  
Begian jaio zan.  
(225.orr.)

**Hiru gizon bakarka**, Gero, Bilbo, 1974, 191 orr.<sup>25</sup>

*Elorri*ren harrera eskasa ikusita, Gandiagak publikorako gehiago ez idaztea erabagiten dau. Beste era bateko poesia egoan orduan pil-

---

<sup>23</sup> *Argia*, 1.049, 1985/02/24, 25.orr.

<sup>24</sup> Ezkiaga, Patxi: “Poeta bizitzaren esploradorea da”, *Enseiukarrean*, 6, 1991, 30.orr.

<sup>25</sup> Mikel Lasaren sarrera. 1991. urtean, *Elkar* argitaletxeak liburu honen bigarren argitalpena egin eban, aurrekoari Joxe Azurmendik eginiko epilogo alkarrizketatu bat gehituaz.

-pilean: poesia soziala, gizarte-arazoari begira egoana. Hori dala-eta, bere burua olerkigintzatik baztertuta-edo ikusten dau poetak lirikoak. Arantzazuko mundutik kanpoko arazoak ez jakoz poetari behar besteko indarrez heltzen eta euskal gizarte arazotsuarekiko dauan lotura be, ahulegia da. Egoera honetan, poetak idatzi bai, idatzi egiten dau, baina bere buruarekiko hurreratze modura edo ezagutze-ari-keta gisa baino ez dau egiten.

Oteiza Arantzazura heltzen danean, irudigileagazko hartuemonak erabakiorrak gertatuko ziran etsita egoan poetaren karrera poetikoan. Idazteko etengabe animatuaz, zirikatuz eta kinatuaz, mututurik egoana kantuan jarri eban oriotarrak: “Lehen komentuko lau paretan artean bizi banintzen jadanik inguruan neukan gizajende, giza sentipen etab. nagusitu zitzaizkidan”<sup>26</sup>. Ordurako Gandiagak Arestiren obraren barri be baeukanez, bilbotarraren zeharkako eragina be bada-goke *Hiru gizon bakarka* liburuan, Blas de Otero eta garaitikoenaz aparte. Xabier Letek liburuari eginiko kritika baten honela dinosku: “Gandiagaren poemetan nabari den humanismo hori kristau girokoa da, nere ustez; baina humanismo ber hori gizonaren sozial-izatearen kontzientzia osaturik eta azpimarkaturik dago, eta Gandiagaren kasu konkretu hontan, sozialtasun horren adierazpen nagusia Herri baten izan-nahi-eta-ezin-izate minberakor eta argi-ilun batetan datza”<sup>27</sup>.

Liburuak itzelezko arrakasta izan eban orduko Euskalerrri mindu eta zartatuan eta Euskal Kantagintza Berriak eurrez erabili zituan Gandiagaren olerkiak abestiak moldatzeko. Euskal kantariak 1977ko zemendiaren zortzian, Durangoko Ezkurdin, “Poema eta Kanta Jaia” izeneko jaialdian erakutsi eutsoen poetari euren eskerrona (Orduantxe, “Liburu eta Disko Azoka”kari, labatik hara aurkeztu eban Gandiagak bere hirugarren liburua). “Bitoriano Gandiaga da

---

<sup>26</sup> *Argia*, 1.049, 1985/02/24, 26.orr.

<sup>27</sup> Lete, Xabier: “Hiru gizon bakarka”, *Zeruko Argia*, 578, 1974/03/08, 7.orr.

gerraosteko poetarik abestuena” irakurri eitekean jaialdiko esku-programan. Bertan egon ginenok oraindik be badaukagu omenaldi bero harek gudan sortuazo eban zirraren akordua.

*Oteitzari*

Begiek dakustenetik  
bihotzak nahi lukeenera  
zubi zahartu hau luzarazteko  
nahi-izatea gutxi da.

Gaztainadiak bezala  
gaitzak jo digun herria  
urritzen doa,  
gazanaidiak  
bezala hiltzen utzia.

(143.orr.)

**Uda batez Madrilen** , Jakin, Oñati, 1977, 203 orr.<sup>28</sup>

Poetak *Elorri* liburua barruak eskatuta burutu eban, kezka pertsonalei erantzunaz. *Hiru gizon bakarkan*, Euskalerra osoaren bizi nahi eta ezinen barri, bere baitarik proiektatuta, emon euskun. Kasuon, hau da, *Uda batez Madrilen* liburuan Madril uri haundiak beragan sortuazotako inpresioak eta zirrarak batu gura izan zituan Gandiagak, gizona be ahaztu barik. Izan be, ingurumari uritar korapilotsu horretan poetak deserrotua dakus gizakia, automata modura batzuetan, txaboladiko pobrezian besteetan; baina herkide modura ikusi gura leuke gizakia, duintasunak bitzuok –poeta eta gizaki madrildar/orotar hori– lotuta.

---

<sup>28</sup> J.M. Lekuonaren sarrera.

Liburu hau hizkuntzaren kontra eginiko saio neketsua izan zan, poetak ordura arte erabilitako espresabideak eta baliabide poetiko-linguistikoak murriz eta urri gertatzen jakozalako uriaren erraldoitasuna eta konplexutasuna adiazotera emon ahal izateko: “Ez dago forma beretsuetan espresatzerik Arantzazuko lanbroa eta Madrilgo trafikoa. Arraz diferenteak dira eragin eta zentzu espazialak, arraz diferenteak mintzagaiak. Espresabide berri baten beharrean aurkitu nintzen, hango errealitatea harrapatu eta menderatuko banuen”<sup>29</sup>.

J.M. Lekuonak, hitzaurrean, poetaren trilogia osotzen eban liburu polito goraiatu eban: “Hirugarren honek, batez ere bere gailurretan, orain arteko Gandiaga bera superatzen duela esatearekin dena esanda dagoela uste dut”<sup>30</sup>. Halanda be, liburuak izan eban harrera merezi ebana baino txikerragoa izan zalakoa daukagu. Baliteke, kasuon be, denbora joanago eta istimu haundiagoa izatea Gandiagaren madrileratze honen kronikak.

KANTAGAIRIK asko, baina  
ez dakit nola kantatu.  
kantagairik asko baina.  
Hizkuntza ez zait iristen,  
ala ezin dut moldatu.

(48.orr.)

**Denbora galdu alde** , Erein, Donostia, 1985, 160 orr.

Liburu hau psikiatraren agindu baten ondorio zuzena da. Denbora galtzen ikasi behar ebala esan eutsan medikuak poeta kezkatu, estutuari. Eta zer hobea poetarentzat denbora idazlumari eragiten galtzea baino? Horrelaxe sortu zan liburu. Olerkiakaz nahaste,

---

<sup>29</sup> “Nere obraz”, 215.orr.

<sup>30</sup> *Hiru gizon bakarka*, XXVIII.orr.

proszko zati ugari daukaz liburuak; prosa soltea, sentimentutik harakoa, benetakotasunez blaitua. Ikutu autobiografiko haundia dau, beraz, liburuak, eta bertan Gandiagak bere kezka nagusiak jorratzen ditu: umezaroko bizipenak, komentuko eginbeharren zama eroanezina, nortasun arazoak, gauzak estuegi hartzeko jokera, euskalduntasuna normaltasunez eta duintasunez bizi ezina, gizaki behartsuen patua... Egilearentzat: “*Denbora galdu alde* autoanalisia den lan konplexu, artifiziosoa, ahalik modu xinpleenera ekarri nahi izan da. Formetan nahaste-borraste bat dago. Apropos. Libertate bila. Baina hitzetan, esaeretan, zentzu komunaren jakindurian, berriro Orbelaunekiko lotura estua dago: etxeko ipuin-giroa, aitaren erako *parekoak* (gure aitarentzat, *parekoa*, bertsoetako puntu irregular samar bat zen), inguruko esamoldeen erabilpena etab.”<sup>31</sup>.

HEMEN  
euskaldun izatea bezalako  
gudaririk ez dago.  
Hemen euskaraz irakurri  
eta euskaraz idaztea bezalako  
iraultzalerik ez dago.  
Hemen  
euskara indartzea bezalako  
indar politikorik ez dago.  
Hemen ez dago  
euskara adinako desafiorik  
inperio zurrupariaren  
aurka.  
Hemen ez dago  
euskara adinako  
askatasunaren aldeko  
itxarobiderik.  
(113.orr.)

---

<sup>31</sup> “Nere obraz”, 217.orr.

**Gabon dut anuntzio** , EFA, Oñati, 1986, 131 orr.

Guraso Jose eta Anastasiari dedikatutako olerki-bilduma honetan, barrero garoaz idazleak bere jaiotetxeko girora, Gabon girora hatan be: “Tradizioak, ohiturak, / zeinuak eta fedea, / dena genuen batera bizi, / hori zen gure legea” (26.orr.). Ez ditu ahaztuko, halanda be, gaurko gabonen gehiegikeria eta kontsumokeriarako joera: “pobreen amarez utzi beharko / hainbeste gauza alferri, / jai hain ederrik gerta ez dadin / inoren lotsari berri” (49.orr.).

1970-1985 epeko olerkiz egina dago liburua. 70-75 epekoak Arantzazuko kolejioko aldizkarian argitaratuak dira eta gainontzeko gehienek *Egan* aldizkarian ikusi eben argia. Bigarren sorta honetako olerkiei “kanta” deritze Gandiagak, Pello Zabala fraile lagunak beren-beregi musikatuak diralako. Arantzazuko bazterrek badaukie doinu honeen barri, Gabon bezperetako errondetan abestuak izan diralako eurentariko asko eta asko.

Formari heltzen badeutsagu, argia da olerkioi darien herrikoitasuna, baita musikalitatea eta erritmo atsegina be. Gontzal Mendibil, Pello Zabala eta Gandiagak berak liburuko testuetan oinarriturik emon izan dituen kantaldi-errezitaldietan izan danak badau olerki honeen samurtasunaren eta atsegintasunaren barri.

Eta Gabonak, eta Gabonak:  
Zelofan, paper de plata.

Gabonak datozela-ta  
jendearen tarrapata  
Gabonak datozela-ta  
erosketa da nagusi,  
adornua ta zarata.

(40.orr.)

**Ahotsik behartu gabe** , Erein, Donostia, 1997, 156 orr.

Aurreko liburua argitaratu zanik hamabi urte igaro diran arren, Gandiagak Durangoko iazko Liburu Azokan aurkeztu eban poemario honek ez dakar lumatik harako alerik, ezpada ze, 1963-1989 urte-etako olerkiak, bost ataletan sailkatuta: a) “Argi oneko poema”, 1963.urteko “Olerti” saria irabazi eban; b) “*Olertiko* beste batzuk” (1967-1968), urte biotan Zornotza-Larreako aldizkarian argitara emonikoak; c) “Seminario al descubierto” (1970-1975), Arantzazuko ikasle-irakasleek egiten eben aldizkari elebidunean agertuak; d) “Eupadak” (1985-1988); eta e) “Aza eta nahaste” (1985-1989). Azken atal biotako olerkiak argitara bakoak dira.

CD bategaz horniduta agertu dau plazara *Erein* argitaletxeak liburua. Bertan, Gandiagak berak aukeratu eta errezitatutako 50 olerki entzun daitezke, euretariko hamaika azken liburu honetakoak dirala. Gainontzekoak poetaren aurreko bost liburuetan barrena egindako ibilaldi poetikoa da. Aukera polita, beraz, era atsegin batez, poeta haundi honen poesigintzara hurreratzeko.

KAIXO, ZURI, kaioa:

nork zintuzkeen memento batez, nork  
eskuetan!

Zure hego azpitako luma gozo tartean hatzak ezkutatzuz,

zure haragiaren beroa gozatzeko,

neure ezinik ederrenaren parte bat

zeure lumaotan ezartzeko musu

batez,

nekatzen nauen irrikaren zati bat

eraman diezadazun airera

ta dena

ezina, irrika ta musua

zeure laranja koloreko mokoa

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

ta zeure hanka gorriztak bezala  
airez erabili ta erabili  
ditzazun itsaso antsiatsuaren  
arnasa kresalazkoaren zerutan!  
Nik, aldiz, zure lumen gozoa  
eta zure haragiaren beroa gorde  
eta eramango nituzke nire  
hatzen memorian.

(117.orr.)

\* \* \*

Jarraitu begi gure poetak Arantzazuko bere talaia ederrean *diztikor ta garden*, olerki-*albañuz eguratsa josten*. Eta iraun begie haren olerkiek gu guztion gogo-bihotzetan, gure ondorengoek be *Oi, edertasu naren / eder eta apala!* (*Elorri*, 67.orr.) euskaldunon hizkuntza eder eta apal honexetan esan ahal izan dagien!

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*  
Galdakao, 1998-04-24